

...eta

kitto!

878 zkia.
2014-11-14



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopiaren kirurgia:

- Femtosegundoko laserrarekin: 1.150 € begi bakoitzeko
- Excimer laserrarekin: 975 € begi bakoitzeko

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. - 20600 EIBAR - Tel.: 943 201 844 - www.clinicarecalde.com



○ Andoni Sagama Sarasolaren ordeiz

Andoni Sagamak zuzenduko du hemen-dik aurrera Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak egitasmoa. Hizte-gigintza alorreko buru zen Ibon Sarasolak kargua laga zuen 2013ko ondarrean; ha-la egin zuen Gramatika Batzordeko kide-ek dimisioa aurkeztu eta gero. Miriam Ur-kiak, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko Lantaldeko buruak, lagunduko dio eta Jose Antonio Aduriz euskaltzain urgaz-leak aholkulari lanetan jardungo du. Ho-riekin batera, orain arteko lantaldeko teknikariek (Elizabet Kruzeta eibartarra, Ainhoa Otamendi, Ane Loidi eta Gabriel Fraile) jardun horretan jarraituko dute.

euskararen txokoa

○ Pintxo-poteari buruzko spotak

Euspot, euskarazko spot lehiaketak, hi-rugarren edizioa egingo du aurten. Ira-garki-sortzaileek "Pintxo-potea eta eus-kara" gaia landu beharko dute. Maiatza-ren 9ra arte dago lanak bidaltzeko au-kerak. Lehiaketak 2.250 euro banatuko ditu lau sarietako irabazleen artean: spot onenak 1.000 euro jasoko ditu, Mondragon Unibertsitateko ikasleen spot onenak 500, Publikoaren sariak beste 500 eta Gazteen sariak (18 urte-tik behera) 250 euro. Antolatzaileak Aretxabaletako Udala, Mondragon Uni-bertsitatea eta Arteman Komunikazioa dira. Iaz 22 lan jaso zituzten.



Piriz-en erakusketa ixtear

Domekan itxiko dute egunotan ikusgai izan den Mari Carmen Piriz artista eibartarraren margolan erakusketa Untzagako jubilatua etxean. Oraindik ikusi ez duenak, baina, horretarako aukera izango du gaur arratsaldean, 19.15etatik 21.15etara eta bihar eta etzi, ber-ritz, 12.00etatik 14.00etara.

Saria jaso du "Guernica 1913" antzezlanak

Banarte Antzerki Taldearen "Guernica 1913" antzezlanak eskuratu du 2013ko Espainiako Antzerki Garai-kidearen Sari Nagusia. Espainiako Antzerki Amateur Konfederazioak ematen duen saria lan honentzat izatea aipatutako elkarteko bazki-deek urtarilaren 31ko batzarrean erabaki zuten.

Saritutako antzezlanak iaz estre-

natu zuten Banarte Antzerki Talde-koek eta Sardo Irisarri eibartarrak zuzentzen du eta Rafa Herceren testua Txato Etxanizek "Gernikazarra" historia taldearentzat egindako lanean oinarrituta dago. Hemendik egun gutxira, hilaren 22an Soralu-zen antzezlanak ikusteko aukera izango da, 20.00etan kiroldegiko aretoan hasiko den emanaldian.



Vanessa Atecaren margo erakusketa

Casanella Studio-k erakusketa berria zabaldu du estu-diko erakusketa aretoan: apirilaren erdialdera arte Vanessa Ateca artista eibartarraren margolan abstraktuak ikusteko aukera izango da. Tatutzailen moduan behar-



an diharduen Atecan oso gazte zela ekin zion marrazteari eta, bere koadroak hainbat herrialdetan erakustearrekin batera, argazkilaria eta musika taldeentzat azalak diseinatu ditu behin baino gehiagotan. Horrekin batera, unean uneko dekorazio joerei jarraituta, arlo horretako profesio-nalekin elkarlanean jarduten du.

Piano ikasle gazteak Andoainera

Aurreko asteburuan Coliseoan, Eibarko Gazte V. Piano Jaialdian emanaldia eskaini zuten 56 pianojole gazteek asteburu honetan Andoaingo Piano Jaialdian izango dira, urtero egiten den lehiaketan parte hartzen. Aurreko domekako kontzertuan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan eta Isabel Laspiur, Maite Bilbatua eta Maite Berriozabal irakasleekin pianoa ikasten diharduten 18 urtetik beherako gazteek hartu zuten parte.

Coliseoan 56 pianojole gazte izan ziren.
LEIRE ITURBE

